



Foru tributuen 2018ko lehen sei hilekoko panoramaren ezaugarri nagusia izan da aurrez abian jarritako proiektu eta ekimenak finkatu eta gauzatu direla, hain zuen ere aldizkariaren azken atalean, 2017. urtearen amaieran, aipatu genituenak. Hartara, Estatuarekiko tributu-harremanen arloan, behin haren esparru juridikoa berrikusi eta gaurkotuta abenduaren 28ko 10/2017 Legea onetsiz (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onartu zuen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen du lege horrek), foru-erakundeak aldaketa batzuk eta behar diren doikuntzak sartzen joan dira, beren araudia eta eragikera lege horretatik datorren esparru berriari egokitzeko. Nolanahi ere, komenigarritzat jo dugu Zergak aldizkariaren ale honetan sakontzea Itunean 10/2017 Legearen bitartez egindako tributu-aldaketan azterketan, aldaketa horiek errazago ulertzeko eta, gainera, azterketa bera harreman finantzarioen normalizazioaren agertoki berriaren azalpenarekin eta analisiarekin osatzeko; izan ere, agertoki hori dator Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2017ko maiatzaren 17ko eta 2017ko uztailaren 19ko erabakietatik eta abenduaren 28ko 11/2017 Legearen onarpenetik (Euskadiko kupoa 2017-2021 bosturtekorako zehazteko metodologia onartzen du lege horrek). "Azterlanak eta Kolaborazioak" ataleko lehenengo bi artikuluek Euskadiren eta Estatuaren arteko harreman finantzario eta tributu-arlokoen agertoki berria azaldu nahi dute, beraz.

El panorama tributario foral del primer semestre de 2018 se ha caracterizado principalmente por la consolidación y formalización de proyectos e iniciativas puestas en marcha con anterioridad, que ya referimos en la revista anterior, cuando concluía 2017. Así, en el área de las relaciones tributarias con el Estado, una vez revisado y actualizado su marco jurídico a través de la aprobación de la Ley 10/2017, de 28 de diciembre, por la que se modifica la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, las instituciones forales han ido introduciendo algunas modificaciones y ajustes necesarios para adaptar su normativa y operatoria al nuevo marco derivado de dicha Ley. En todo caso, hemos considerado conveniente en este número de Zergak profundizar en el análisis de los cambios tributarios operados en el Concierto a través de la Ley 10/2017 para facilitar su comprensión y, adicionalmente completarlo con la explicación y el análisis del nuevo escenario de normalización de las relaciones financieras, derivado de los acuerdos de la Comisión Mixta del Concierto Económico de 17 de mayo y de 19 de julio de 2017 y la aprobación de la Ley 11/2017 Ley 11/2017, de 28 de diciembre, por la que se aprueba la metodología de señalamiento del cupo del País Vasco para el quinquenio 2017-2021. Los dos primeros artículos de la sección de "Estudios y Colaboraciones" tienen esa pretensión explicativa del nuevo escenario de relaciones financiero-tributarias entre País Vasco y Estado.

Bestetik, tributu-arloko foru-eskumen propioaz baliatzeari dagokionez, 2018ko lehenengo hilabeteetan aldaketa garrantzitsuak burutu eta onetsi dira araudi autonomikoko tributu itundu nagusietan, funtsean zuzeneko zergapetzean; horiei buruz, izan ere, alde aurreko argibideak eman genituen aurreko aldizkarian, garai hartan proiektu-fasean baitzeuden. Nagusiki honako foru arau hauei buruz ari gara: 2/2018 Foru Araua, martxoaren 7koa, Arabako zerga-sistemaren hainbat arau eta zerga aldatzekoa; 2/2018 Foru Araua, martxoaren 21ekoa (horren bidez, batetik, tributuen ondorioetarako karakterizatzen dira Europako zenbait epe luzerako inbertsio-funts, eta, bestetik, aldaketak egiten dira zenbait zergaren foru-arauetan zein Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan. Hauek dira aldatzen diren foru-arauak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, Ondarearen gaineko Zergarena, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarena eta Kooperatiben Zerga Araubidearena), eta, Gipuzkoako kasuan, 1/2018 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, zerga-arau batzuetan aldaketak sartzen dituen. Hiru foru arau horiei arreta berezia emango diegu "Zergak gaur egun" atalean.

Hirugarrenik, erakundeen arteko lankidetzaren esparruan, interesgarritzat jotzen dugu nabarmentzen jarraitzea prebentzio estrategien arloko funtsezko bi proiektutan —urte anitzeko proiektuak biak ala biak— izandako aurrerapenak: batetik, tributu-heziketa, gazte-gaztetatik hezkuntza-ingurunean kontzientziazio fiskal handiagoa bultzatzen saiatzen dena, eta, bestetik, operadore ekonomikoen fakturazio-eta kobrantza-sistemak kontrolatzeko gailuak ezartzeko proiektua, TicketBAL izenekoa. Bi proiektu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Batzordeak eginiko baterako planetan sartu dira, irauteko asmoarekin sartu ere (batzorde hori Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren barruan sortu zen, 2013ko urriaren 14ko erabakiaren bidez, Eusko Jaurlaritzak aurretiaz eskatutakoari jarraituz, eta bertan hiru foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak parte hartzen dute). "Intereseko

Por otra parte, en el ámbito del ejercicio de la propia competencia tributaria foral, durante los primeros meses de 2018 se han ultimado y aprobado importantes cambios en los principales tributos concertados de normativa autónoma, básicamente en la imposición directa, que ya informamos de forma anticipada en la revista anterior, cuando estaban en fase de proyecto. Nos referimos principalmente a las Normas Forales 2/2018, de 7 de marzo, de modificación de diversas normas y tributos del sistema tributario de Álava, la Norma Foral 2/2018, de 21 de marzo, por la que se caracterizan a efectos tributarios determinados fondos de inversión a largo plazo europeos y se introducen modificaciones en las Normas Forales del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Patrimonio, del Impuesto sobre Sociedades, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones y del Régimen fiscal de Cooperativas, así como en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia y, en Gipuzkoa, la Norma Foral 1/2018, de 10 de mayo, por la que se introducen modificaciones en diversas normas tributarias. Las tres normas forales son objeto de una atención especial en la sección de "Actualidad Fiscal".

En tercer lugar, en el ámbito de la colaboración institucional en la lucha contra el fraude fiscal, consideramos de interés seguir destacando dos de los proyectos clave en el área de las estrategias preventivas, ambos de horizonte plurianual, como son el de educación tributaria, que trata de promover una mayor concienciación fiscal desde una edad temprana, en el entorno educativo y el del establecimiento de dispositivos de control de los sistemas de facturación y cobro de los operadores económicos, denominado proyecto TicketBAL. Los dos proyectos se vienen incorporando con vocación de continuidad en los planes conjuntos elaborados por la Comisión de Lucha contra el Fraude del País Vasco (creada en el seno del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi mediante acuerdo del 14 de octubre de 2013, según había instado previamente el Parlamento Vasco y en la que participan las tres Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco). En la

dokumentuak" atalean, aurrera eramandako jardueraren berri eta bi proiektu egoerari buruzko informazioa lor daiteke, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailako web-orriko tributueziketarako berariazko estekaren bitartez eta beste zenbait sarbideren bitartez; honako dokumentu hauetarako sarbideak dira: batetik, 2017ko EAEko iruzur fiskalaren urteroko txosten integratua, urte horretan iruzur fiskalaren kontrako borrokarako plan bateratuak izan zituen emaitzak biltzen dituen, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko iruzur fiskalaren kontrako borrokarako plan bateratua, 2018. urteko irizpide orokorrak eta egin beharreko jardura bateratuak aurkezten dituen.

Tributu-heziketaren proiektuari dagokionez, 2018ko ekainean amaitu zen 2017-2018 ikasturteari buruzko programa, zeina garatu baitzen Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan gizarte- eta tributueziketarako modulu bat ezartze aldera 2017ko uztailaren 7an izenpetutako hitzarmenaren babesean, eta haren balantzea guztiz ona da, bai lortu den ezarpen mailarengatik —unitate didaktikoa 132 ikastetxetako 5.000 ikasleekin baino gehiagorekin erabili da—, bai ebaluatutako emaitzengatik eta ikasleen eta irakasleen onarpen-mailarengatik ere. Programaren berehalako jarraitutasuna bermatuta dago, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak 2018ko apirilaren 17an aipatutako hitzarmenaren luzapen-akordio bat izenpetu baitute beste hiru ikasturtetarako, 2021era arte. Akordio horren babesean, Eusko Jaurlaritzako zerbitzuek, geroztik, zerbitzuetarako kontratu berri bat egiteko prozedura hasi zuten, hain zuzen ere foru-aldundiek garatutako unitate didaktikoak ezartzeko; horretaz gainera, Ogasun eta Ekonomia Sailak eta Hezkuntza Sailak, foru diputazioekin batera lan eginez, maiatzean eta ekainean informazio-jarduketan multzo bat jarri dute abian, ikastetxeak 2018/2019 ikasturtean tributueziketarako programa balia dezaten lortze aldera.

sección de "Documentos de interés", a través del enlace específico a educación tributaria en la web del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco y de los accesos, por una parte, al Informe Anual Integrado sobre el fraude fiscal en la CAE en 2017, que computa los resultados de las actuaciones del Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal realizadas durante ese año y, por otra, al Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal en el País Vasco, que contiene los criterios generales y las actuaciones coordinadas a realizar durante el año 2018, se puede obtener un reporte de actividad e información del estado de situación de ambos proyectos.

Respecto al proyecto de educación tributaria, finalizado en junio de 2018 el programa correspondiente al curso 2017-2018 desarrollado al amparo del convenio suscrito el 7 de julio de 2017 entre el Gobierno Vasco y las tres Diputaciones Forales para la implantación de un módulo educativo cívico-tributario en los centros de la Comunidad Autónoma de Euskadi, el balance es sumamente satisfactorio, tanto por su grado de implantación - la unidad didáctica se ha impartido a cerca de 5.000 alumno/as pertenecientes a 132 centros escolares-, como por los resultados evaluados y el grado de aceptación por parte de alumnado y profesorado. La continuidad inmediata del programa se ha garantizado con la suscripción por Diputaciones Forales y Gobierno Vasco, el 17 de abril de 2018, de un acuerdo de prórroga del referido convenio por tres cursos escolares adicionales, hasta 2021. Al amparo de este acuerdo, los servicios del Gobierno Vasco iniciaron posteriormente el procedimiento para la formalización de un nuevo contrato de servicios para la implantación de las unidades didácticas desarrolladas por las Diputaciones Forales y adicionalmente, los Departamentos de Hacienda y Economía y de Educación, en colaboración con las Diputaciones Forales han puesto en marcha durante los meses de mayo y junio una batería de actuaciones informativas para promover la adhesión de los centros escolares al programa de educación tributaria en el próximo curso escolar 2018/2019.

Zerga-iruzurraren aurkakoborroka erakundeen arteko lankidetzaren arloan aipatutako bigarren proiektuari dagokionez, haren jatorria 2016ko Euskadiko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratuan dago, zeinean konpromiso bat hartu baitzen: abian jartzeko urte anitzeko proiektu bat, eskudiru-mugimendu handiak dituzten jarduera-sektore jakin batzuetako kutxa erregistratzaileak eta fakturatzeko beste edozein gailu kontrolatzeko sistema bat ezartzea ahalbidetuko duena. Hori guztia, bat etoriz ELGAren 2013ko urriko azterlanak —«Salmenten ezabatze elektronikoa: mehatxu bat diru-sarrera fiskalentzat» izenburukoak— jasotako gomendioekin, eta kontuan hartuta gure inguruko beste herrialde batzuen esperientzia. Iruzzurraren kontrako Borrokarako 2018ko Plan Bateratuak aurreikusten du urte horretan, berariaz sortutako erakundeen arteko lantaldeak jarraitu egingo duela jarduera ekonomikoak garatzen dituzten zergadunen fakturazio-sistemen kontrolerako plan integral bat ezartzeko proiektua gauzatzen, Berehalako Informazio Hornidura (BIH) abian jarri ondoren; izan ere, sistema horren bitartez zergadun handiek egindako eta jasotako fakturei buruzko datuak igortzeko betebeharra daukate. Halaber, 2018. urtean, aurreikusita dago foru ogasunek zehaztea kontrol-sistemak zer espezifikazio tekniko bete behar dituen, eta proiektua abian jartzeko egin beharreko araudi-ekimenak proposatzea. Horretarako, hura mailaka ezartzeko egutegia prestatuko dute, eta funtzionaltasunak kontrastatzeko aukera ematen duten kontzeptu-probak diseinatuko dituzte; izan ere, proba horiek erritmo egokian garatzen ari dira.

“Zergak gaur egun” atalean zehatz-mehatz adierazita dago foru-erakundeek aldizkari horrek barne hartutako epean (2017ko azaroa-2018ko ekaina) onetsi eta tributu-arloan izan duten araugintza-jarduera guztia. Halaber, foru-aldundietako zerga-araudiaren edo zerga-politikaren zerbitzuek gaurkotatunagatik edo esanahi bereziagatik nabarmendu dituzten xedapen batzuen iruzkina ere egin dugu. Foru-lurraldeen tributu-sistemetan, zenbait arau-eta erregelamendu-aldaketa onetsi dira, eta

En cuanto al segundo proyecto enunciado en el ámbito de la colaboración institucional en la lucha contra el fraude fiscal, su origen se sitúa en el Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal de 2016, en el que se asumió el compromiso de poner en marcha un proyecto plurianual que permitiese la implantación de un sistema de control de cajas registradoras y de cualquier otro dispositivo de facturación en determinados sectores de actividad que son intensivos en el manejo de dinero en efectivo. Todo ello, de acuerdo con las recomendaciones contenidas en el estudio de la OCDE de octubre de 2013 de título “Supresión electrónica de ventas: una amenaza para los ingresos fiscales” y teniendo en cuenta la experiencia de otros países de nuestro entorno. El Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude de 2018, prevé que durante este año se continuará, por parte del grupo de trabajo interinstitucional específico creado al efecto, con el desarrollo del proyecto de implantación de un plan integral de control de los sistemas de facturación de los contribuyentes que desarrollan actividades económicas, una vez puesto en marcha el Suministro Inmediato de Información (SII) por el que los grandes contribuyentes están obligados al envío de los datos referidos a las facturas emitidas y recibidas. Asimismo, durante el año 2018, está previsto que las Haciendas Forales definan las especificaciones técnicas que debe cumplir el sistema de control y que trabajen en las iniciativas normativas necesarias para la puesta en marcha del proyecto, elaborando su calendario de implantación progresiva y el diseño de las pruebas de concepto que permitan contrastar sus funcionalidades, que de hecho se están desarrollando a buen ritmo.

La actividad normativa de las instituciones forales en materia tributaria durante el periodo de referencia de esta revista (noviembre 2017 – junio 2018) se relaciona de forma exhaustiva en la sección de “Actualidad Fiscal”, junto con el comentario de una selección de disposiciones que los Servicios de Normativa Tributaria o de Política Fiscal de las Diputaciones Forales han destacado por su actualidad o por su especial significación. Se han aprobado cambios diversos en los sistemas tributarios forales, tanto de rango normativo

eragina izan dute zerga gehienetan: batetik, arau-eskumena duten eta, ondorioz, arautzeko diskrezionalitatea duten tributuetan, eta, bestetik, Ekonomia Itunaren arabera Estatuaren arauen arabera zuzendu beharreko tributuetan.

Erreferentziako aldian arau-xedapenen bitartez formalizatu diren tributu-ekimenen artean, bereziki nabarmendu beharra dago, aurrez aipatu den bezala, hiru lurralde historikoetan berrikusi egin dela zuzeneko zergapetzearen eredua, 2014an indarrean sartu zen erreformaren bitartez ezarritakoa. Berrikuspen horrek eragin du zenbait tributu-figuratan aldaketak egitea, funtsean aurreko erreformaren printzipioak indartzeko eta, bereziki, fiskalitatearen bidez errekonferazio ekonomikoa sendotzen laguntzeko, bistatik galdu gabe zerbitzu publikoen maila egokia bermatzeko beharrezkoa den nahikotasun finantzarioa. Aldaketa horiek —haietatik gehienei buruz Zergak aldizkariaren aurreko alean hitz egin genuen, proiektu-fasean zeudenan— 2018ko martxoan eta maiatzean onetsitako kasuan kasuko foru arauen bitartez gauzatu dira, eta zuzeneko tributu gehienetan (PFEZa, Sozietateen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, Ondoretzen eta Dohaintzen gaineko Zerga) izan dute eragina; gainera, bide batez, tributuei buruzko hurrenez hurrenko foru arau orokorretan zenbait doikuntza egin dira foru araudiaren eskumenekoak diren zeharkako zerga batzuetan. Aldaketa nagusien zerrenda, horietako bakoitzaren azalpen labur batekin, aldizkari honen “Zergak gaur egun” atalean jaso dira.

Halaber, “Zergak gaur egun” atalean, aldizkariaren ale honen erreferentziako aldian onetsi diren tributuen arloko erregelamendu izaerako arau-ekimenen multzo bati buruz hitz egiten da.

Europar Batasuneko gaurkotariskun fiskalaren kronikak, Euskadik Bruselan duen Delegazioak

como reglamentario, que han afectado a la mayor parte de los impuestos: a aquellos sobre los que se dispone de competencia normativa y por tanto discrecionalidad para su regulación, y también a aquellos otros tributos que, según regula el Concierto Económico, han de regirse por las normas establecidas por el Estado.

Entre las iniciativas tributarias que se han formalizado mediante disposiciones normativas en el periodo de referencia, debe destacarse de manera especial, como se ha señalado anteriormente, la revisión en los tres territorios históricos del modelo de imposición directa que fue implantado a través de la reforma que entró en vigor en 2014. Dicha revisión ha motivado la introducción de modificaciones en diversas figuras tributarias, básicamente con el objetivo de reforzar los principios de la reforma anterior y en especial contribuir desde la fiscalidad a la consolidación de la recuperación económica, sin perder de vista la suficiencia financiera necesaria para garantizar el nivel adecuado de prestación de servicios públicos. Estas modificaciones, que en su mayoría se refirieron también en el editorial del anterior número de Zergak, cuando estaban en fase de proyecto, se han instrumentado mediante las correspondientes normas forales aprobadas entre marzo y mayo de 2018 y han afectado a la mayor parte de los tributos directos (IRPF, IS, Impuesto sobre el Patrimonio, Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones), aprovechando además para realizar determinados ajustes en alguno de los impuestos indirectos respecto a los que se dispone de competencia normativa foral y en las respectivas normas forales generales tributarias. La relación de las principales modificaciones se recoge, con una breve explicación de cada una de ellas, en la sección de “Actualidad Fiscal” de esta revista.

Asimismo en la sección de “Actualidad Fiscal” se comenta una batería de iniciativas normativas de naturaleza tributaria de orden reglamentario aprobadas en el periodo de referencia de este número de la revista.

La crónica de la actualidad fiscal en la Unión Europea que elabora el personal de la

egindakoa bera, 2018ko lehen seihiilekoan gertatu diren aldaketa nabarmenenak biltzen ditu, eta zazpi atal handitan banatzen da: i) sarrera, ii) sozietateen fiskalitatea, iii) BEZa, iv) zerga bereziak, v) administrazio-lankidetzak, vi) arau-hausteen prozedurak eta azken atala vii) txostenak eta argitalpenak.

Sarrerak ginetik azaltzen ditu Bulgariako lehendakartzaren (2018ko lehen seihiilekoa) lehentasunak. Hain zuzen ere, Estoniarekin eta Austriarekin batera, 2017ko uztailaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra arte lehendakartzak 18 hilabetez txandaka hartuko duten hiru herrialdeen taldea osatzen du; epe luzerako helburuak finkatuko dituzte horiek eta programa erkidea landuko dute. Zuzeneko fiskalitatearen arloan, seihiileko honen lehentasunak —ECOFINen urtarilaren 23an aurkeztuak— nagusiki honako hauek dira: adostasun bat lortzea jakinarazi beharreko mugaz gaindiko mekanismoei dagokionez informazio-truke automatikoa egin beharri buruzko zuzentarau-proposamenari buruz (Lankidetzak Administrazioari buruzko Zuzentaraua - DAC6); lan egiten jarraitzea Sozietateen gaineko zergari zerga-oinarri komun bati buruzko zuzentarau-proposamenean, eta aurrera egitea multinazionalen ekonomia digitalaren bitartez sortutako etekinak zergapetzeko proposamenean. Bestalde, zeharkako fiskalitatearen arloan, Bulgariako lehendakartzak programa honako hauek zentratu ditu: BEZaren behin betiko sistemarekin lortutako aurrerapenak lortzea, zerga hori kontsumoan oinarritu beharrean zergapetzean oinarrituz; BEZaren iruzurraren kontrako borrokaren arloan administrazioen arteko lankidetzak hobetzeko erregelamendu-proposamena; eta enpresa txiki eta ertainentzako laguntza, enpresa txiki eta ertainentzako BEZaren zuzentarau-proposamenaren bitartez.

Sozietateen fiskalitateari dagokionez, lau gai aztertuko dira: i) Kontseiluko zuzeneko fiskalitatearen lantaldeko eztabaida eta lanak (ECOFIN Kontseiluan bertan eta Europako Parlamentuan),

Delegación de Euskadi en Bruselas da cuenta de lo más significativo en materia de fiscalidad acontecido durante el primer semestre de 2018, estructurándose en siete grandes apartados: i) introducción, ii) fiscalidad de las sociedades, iii) IVA, iv) impuestos especiales, v) cooperación administrativa, vi) procedimientos de infracción y un último apartado vii) sobre informes y publicaciones.

El apartado introductorio describe a grandes rasgos las prioridades de la presidencia de Bulgaria, a quien ha correspondido su ejercicio durante el primer semestre de 2018 y que, junto con Estonia y Austria integra el grupo de tres países (trío) que en el periodo de 18 meses comprendido entre 1 de julio de 2017 y 31 de diciembre de 2018 rotarán la presidencia y fijan unos objetivos a largo plazo y elaboran el programa común. En el área de fiscalidad directa, las prioridades del semestre —que fueron presentadas en el ECOFIN de 23 de enero— se han orientado principalmente en alcanzar un acuerdo sobre la propuesta de Directiva de obligatoriedad del intercambio automático de información en relación con los mecanismos transfronterizos sujetos a comunicación (Directiva de Cooperación Administrativa - DAC6), en seguir trabajando en la propuesta de Directiva sobre una base imponible común del impuesto sobre sociedades y en progresar en relación con las propuestas de imposición de los beneficios generados por multinacionales a través de la economía digital. Por otra parte, en el área de la fiscalidad indirecta, el programa de la presidencia de Bulgaria se ha centrado en lograr avances en relación con el sistema definitivo del IVA basado en la imposición en el lugar de consumo, en la propuesta de Reglamento para mejorar la cooperación administrativa en el ámbito de la lucha contra el fraude del IVA y en el apoyo de las pequeñas y medianas empresas a través de la propuesta de Directiva del IVA para pymes.

En cuanto a la fiscalidad de las sociedades, se abordan cuatro cuestiones: i) el debate y los trabajos en el seno del grupo de trabajo de fiscalidad directa del Consejo, en el propio

sozietateen gaineko zergari buruzko zerga-oinarri bateratu bat izateari buruzkoak; lehen fasea egin da bi fasetako ikuspegi batekin: lehenbizi zuzentarau honen bitartez, zergaren zerga-oinarria kalkulatzeko arauak erregulatuz, eta, bigarrenik, bateratzearen gaineko akordio bati buruzko beste zuzentarau baten bidez; ii) batetik Enpresen fiskalitateari buruzko Jokabide Kodearen gaineko bilerak (seihilekoan hiru izan dira): tresna hori, juridikoki loteslea ez bada ere, estatu kideen aldetik konpromiso bat lortzen du kaltegarritzat jotzen diren neurri fiskalak indarrak gabe utz ditzaten; eta bestetik, arlo honetan egindako lanei buruz ECOFIN Kontseiluan lortutako ondorioak; eta iii) ekonomia digitalaren fiskalitateari buruzko legegintza proposamen berriak: Europar Batasunean gaur egun zergapetzetik kanpo geratzen diren jarduera digital nagusiak zergapetuko duen behin-behineko zerga bati buruzkoak, eta epe luzean Sozietateengaineko Zergaren arloan konponbide integral bat bilatzen dutenak, halako moduz non etekinak deklaratu eta zergapetuko baitira enpresek bide digitalak erabiliz erabiltzaileekiko elkarreragin adierazgarria gauzatzen duten tokietan.

BEZari dagokionez, Bulgariaren lehendakaritzapean ECOFIN Kontseiluko lantaldeak landu dituen bederatzi gai nagusiak aipatzen ditu EBko fiskalitateari buruzko txostenak. Lehenbizi, ECOFIN Kontseiluak merkataritza elektronikoen gaineko BEZa dela-eta hartu erabaki dituen arau berriak. Txosteneko BEZari buruzko atalak aipatzen duen bigarren ikuspegia BEZaren arloko iruzur fiskala prebenitzeko lankidetzatza administratiboa indartzeko Kontseiluak erabakitako neurriei dagokiena da. Hirugarrenik, BEZaren iruzurraren kontra egiteko subjektu pasiboa modu orokorrean inbertitzeko mekanismo baterako aldi baterako proposamena dago —hori buruz ez zen adostasunik lortu maiatzaren 25eko Kontseiluan—. Laugarrenik, argitalpen elektronikoei BEZ tasa gutxituak aplikatzeko proposamena aipatzen da, halako moduz non argitalpen fisikoekin harmonizatuko baitira. Bosgarren atalean aipatzen dira estatu kideei, BEZaren zerga-tasak finkatzeko garaian, malgutasun handiagoa emateko Batzordeak

Consejo ECOFIN y en el Parlamento Europeo, sobre la Propuesta de Directiva sobre una base imponible común del impuesto sobre sociedades, primera fase de un enfoque en dos fases, primero, a través de esta directiva, regulación de las reglas de cálculo de la base imponible del impuesto y segundo, mediante otra directiva, acuerdo relativo a la consolidación, ii) las reuniones (3 durante el semestre) del Código de Conducta sobre la fiscalidad de las empresa, instrumento que si bien no es jurídicamente vinculante, sí compromete a los estados miembros a derogar las medidas fiscales consideradas perniciosas, así como las conclusiones adoptadas en el Consejo ECOFIN sobre los trabajos realizados en este ámbito y iii) las nuevas propuestas legislativas sobre la fiscalidad de la economía digital: las relativas a un impuesto provisional que grave las principales actividades digitales que actualmente quedan al margen de imposición en la UE y las propuestas a largo plazo que buscan una solución integral en el ámbito del Impuesto sobre Sociedades, de tal manera que se declaren y graven los beneficios allí donde las empresas lleven a cabo una interacción significativa con los usuarios mediante canales digitales.

Respecto al IVA, el Informe sobre Fiscalidad en la UE refiere nueve grandes temas en los que se ha centrado la actividad de los Grupos de trabajo del Consejo ECOFIN durante la presidencia de Bulgaria. En primer lugar, las nuevas normas adoptadas por el Consejo ECOFIN en relación con el IVA sobre el comercio electrónico. El segundo foco de actividad al que se refiere el apartado sobre IVA del Informe, las medidas acordadas por el Consejo destinadas a reforzar la cooperación administrativa para prevenir el fraude del IVA. En tercer lugar, la propuesta —sobre la que no se alcanzó acuerdo en el Consejo de 25 de mayo— de aplicación temporal de un mecanismo de inversión de sujeto pasivo de manera generalizada para combatir el fraude del IVA. En cuarto lugar, se hace referencia a la propuesta de aplicación de tipos IVA reducidos a las publicaciones electrónicas, de modo que se armonicen con las publicaciones físicas. En el apartado quinto se hace referencia a las

egindako proposamenak, bai eta enpresa txiki eta ertainak garatzeko zerga-esparru aldekoagoa sortzeko proposamenak ere, haien betetze-kostuak gutxituz; hori guztia, Europar Batasunean BEZ sistema berri eta behin betikoa sortzearen testuinguruan. BEZari buruzko seigarren puntuan, etorkizunean iruzurraren kontra indartsuagoa izango den BEZ sistema bat sortzeko Batzordeak proposatu dituen behin betiko neurri teknikoak aipatzen dira: i) estatu kide desberdinetako operadoreen artean produktuak zergapetzeko modua erraztea, haiek destinoan zergapetuz; ii) atari bakarra sortzea linean (leihatila bakarra) merkataritza guztientzat (B2B); iii) burokrasia gutxiago; eta iv) saltzaileak BEZa destinoko herrialdeko zerga-tasen arabera fakturatzeko arau orokorra, ziurtagiria duten subjektu pasiboen salbuespenarekin. Zazpigarren puntuak Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialak BEZaren erreformarako paketeari buruz egindako irizpenaren laburpena ematen du; 2018ko martxoaren 14ko Osoko Bilkuran onetsi zen. Zortzigarrenik, merkataritza elektronikoa iruzurraren kontra egiteko informazio-trukeari buruzko kontsulta publikoa aztertzen da: kontsultaren aurrekariak, helburuak eta emaitzak aipatzen dira; horiek eskuratzeko argitaratuta dauden web-orriak jo beharra dago. Azkenik, landutako bederatzigarren gaia C 251/16 aferari buruzko epaia aipatzen da, BEZaren arloan abusuzko jokabideak debekatzeari buruzkoa, alde batera utzita nazio mailako neurriren bat ba ote dagoen hura estatu kideetako ordenamendu juridikoan txertatzeko; horretarako, beraz, ez da transposizio nazionaleko inongo neuririk eskatzen.

Zerga Bereziei buruzko atalak Batzordearen proposamena aipatzen du (2018ko maiatzaren 25ekoa), Europar Batasunean Alkoholaren gaineko Zerga Bereziari buruzko arauak berregituratzeko. Oro har, proposamenak bilatzen du arau horiek gaurkotzea eta haiek enpresa-ingurunearen baldintzei egokitzea; alkohol-enpresa txikien kostuak gutxitzea, eta kontsumitzaileen osasuna hobeki babestea.

propuestas de la Comisión para dotar de mayor flexibilidad a los estados miembros a la hora de fijar los tipos impositivos del IVA y las propuestas de creación de un marco fiscal más favorable para el desarrollo de las pymes reduciendo sus costes de cumplimiento, todo ello en el contexto de la creación de un sistema del IVA nuevo y definitivo en la UE. En el punto sexto relativo al IVA se alude las medidas técnicas definitivas propuestas por la Comisión para crear un futuro sistema del IVA más resiliente al fraude: i) simplificación de la manera en que se gravan los productos entre operadores de distintos estados miembros gravándose en destino, ii) creación de un portal único en línea (ventanilla única) para todos los comerciantes (B2B), iii) menor burocracia y iv) regla general de facturación del IVA por parte del vendedor a los tipos impositivos del país de destino, con la excepción de los sujetos pasivos certificados. El punto séptimo resume el dictamen del Comité Económico y Social Europeo sobre el paquete de la reforma IVA aprobado en el pleno del 14 de marzo de 2018. En octavo lugar, se trata sobre la consulta pública sobre el intercambio de información para combatir el fraude en el comercio electrónico, refiriendo los antecedentes de la consulta, sus objetivos y los resultados, para cuyo acceso se remite a la web en que se han publicado. Por último, la novena cuestión abordada se refiere a la Sentencia en el asunto C 251/16 sobre la prohibición de prácticas abusivas en el ámbito del IVA con independencia de que exista o no una medida nacional que la incorpore al ordenamiento jurídico de los Estados miembros, no requiriéndose por tanto a estos efectos ninguna medida de transposición nacional.

El apartado relativo a los Impuestos Especiales alude a la propuesta de la Comisión (25 de mayo de 2018) de reconfiguración de las normas por las que se rige el Impuesto especial sobre el Alcohol en la UE. En líneas generales la propuesta persigue la actualización de dichas normas y su adaptación a las condiciones del entorno empresarial, la reducción de los costes de las pequeñas empresas alcoholeras y una mejor protección de la salud de los consumidores.

Administrazio-lankidetzaren eremuan bost gairen iruzkina egin da. Lehenik, 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzeko zuzentarau-proposamena, jakinarazi beharreko mugaz gaindiko mekanismoei lotuta fiskalitatearen arloan informazio-truke automatikoa egin beharri dagokionez (Administrazio-lankidetzari buruzko 6. zuzentaraua), zeina ECOFIN Kontseiluak 2018ko maiatzaren 25ean onetsi baitzuen behin betiko. Proposamen horrek bitartekariak behartzen ditu zerga-administrazioari agresiboa izan daitekeen zerga-plangintzako mekanismoak jakinaraztera horietan beren lan-jardueraren barruan dihardutenean. Maila teknikoan eztabaidatu dute zuzeneko fiskalitateari buruzko lantaldearen lau bileratan 2018ko lehen seihilekoaren barruan. Bigarrenik, administrazio-lankidetzaren alorrean, aipatzen da ondore fiskaletarako lankidetzan aritzen ez diren jurisdikzioen zerrenda 2018ko lehen seihilekoan berrikusi eta gaurkotu dela. Abenduaren 5eko ECOFIN Kontseiluan onetsitako ondorioetan jasota dago zerrenda hori. Zerrenda horrek, zeina hasiera batean zerga-ondoreetarako laguntzaile ez ziren hamazazpi herrialde eta lurraldeena baitzen, zazpi sarrera baizik ez dauka orain. Hirugarrenik, aipatzen da 2018ko otsailaren 6an Europar Batasunaren eta Norvegiaren arteko Akordioa sinatu dela, BEZaren arloko lankidetzaren, iruzurraren prebentzioen eta kredituak kobratzearen arlorako. Izan ere, Norvegiarekin sinatu du Europar Batasunak arlo honetako lehenbiziko akordioa. Laugarrenik, informazioa ematen da zuzeneko fiskalitateari buruzko lantaldearen ekainaren 13ko bileran Batzordeak aurkeztu duen FISCALIS programaren erregelamendu-proposamenean jasotako ildo nagusiei buruz. 270 milioi euroko aurrekontu-zuzkidura aurreikusten du 2021-2027 aldirako. Azken puntua, bosgarrena, lankidetzaren administratiboari buruzkoa da, eta zerga-gaien arloko gobernamentu onari buruzko klausula bat aipatzen du; izan ere, uste da komenigarria dela hura sartzea Europar Batasunak eta haren estatu kideek hirugarren herrialdeekin egiten dituzten akordioetan.

Halaber, Europar Batasunaren 2017ko abendua-2018ko ekaina aldiaren fiskalitateari buruzko txostenak, "Arau-hausteetarako prozedurak"

En el ámbito de la cooperación administrativa son objeto de comentario cinco cuestiones. Primero, la propuesta de Directiva por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE en lo que se refiere a la obligatoriedad del intercambio automático de información en el ámbito de la fiscalidad en relación con los mecanismos transfronterizos sujetos a comunicación (DAC 6), definitivamente adoptada en el Consejo ECOFIN de 25 de mayo de 2018. Esta propuesta impone a los intermediarios la obligación de revelar a la administración tributaria los mecanismos de planificación fiscal potencialmente agresiva cuando participen en ellos en el ejercicio de su actividad profesional, y se ha debatido a nivel técnico en cuatro reuniones del grupo de trabajo de fiscalidad directa a lo largo del primer semestre de 2018. En segundo lugar, en el ámbito de la Cooperación administrativa, se informa sobre la revisión y actualización a lo largo del primer semestre de 2018 de la lista de jurisdicciones no cooperativas a efectos fiscales, contenida en las Conclusiones aprobadas que fueron aprobadas en el Consejo ECOFIN de 5 de diciembre. Esa lista, en principio de diecisiete países y territorios no cooperadores a efectos fiscales, se ha reducido hasta las actuales siete entradas. En tercer lugar se informa de la firma, el 6 de febrero de 2018 del Acuerdo UE-Noruega en materia de cooperación, prevención del fraude y cobro de créditos en el ámbito del IVA, siendo Noruega el primer país con el que la UE celebra un acuerdo en este ámbito. En cuarto lugar, se informa sobre las principales líneas de actuación recogidas en la propuesta de Reglamento del programa FISCALIS presentada por la Comisión durante la reunión del grupo de trabajo de fiscalidad directa del 13 de junio, que prevé una dotación presupuestaria de 270 millones de euros para el periodo 2021-2027. El quinto y último punto relativo a la cooperación administrativa se refiere a la cláusula sobre buena gobernanza en temas fiscales que se considera conveniente incluir en los acuerdos que hayan de celebrar la UE y sus Estados miembros con terceros países.

Asimismo, el informe sobre fiscalidad UE del periodo diciembre 2017 – junio 2018, en su apartado de Procedimientos de infracción,

atalean, lehenbizi i) sarrera bat egiten du prozeduraren etapak deskribatzeko; gero ii) hamar epatze-gutun aipatzen ditu, estatu kideetako agintariei zuzenduak, Batzordeak Europar Batasunaren arauak urratzeagatik arau-hausteak detektatu dituen kasuetan; iii) halaber, Batzordeak emandako zazpi irizpen ziodun aipatzen ditu, zeinetan estatu kide jakin batzuk premiatzen baitira beren araudia behar bezala egokitu dezaten; iv) artxibatu diren gaien aipamen luze bat egiten du, ukitutako estatu kideek arau-hauste prozeduretan neurri zuzentzaileak hartu dituztenean, hain zuzen ere haiek artxibatzea eragiten dutenak, eta v) Europar Batasunaren Justizia Auzitegira gai bat igorri izanaren berri ematen du, Austria ukitzen duena: artelanen salmenta-eskubideei aplikatzekoa den BEZ araubideari buruzkoa da.

Azkenik, Europar Batasuneko Fiskalitateari buruzko txostenen eta argitalpenen atalean, argitalpen interesgarri batzuen zerrenda ematen da, horiek eskuratzeko helbideekin.

“Azterlanak eta Kolaborazioak» atalean bost artikulua ditugu oraingo honetan. Lehenengo biek Ekonomia Itunaren 2017ko maiatzaren 17ko eta uztailaren 19ko akordioen edukia aztertzen dute tributur-arloari dagokionez, alde batetik, eta finantzen arloari dagokionez, bestetik. Akordio horiek gero Estatuaren eta Euskadiren arteko harreman finantzario eta tributur-arlokoaren esparru juridikoan txertatu ziren, 2017ko abenduaren 28ko 10. eta 11. legeak onestearen bitartez (abenduaren 29ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren lege horiek). Bi artikulua horietako lehenengoak, “Ekonomia Itunaren aldaketa: abenduaren 28ko 10/2017 Legearen analisia” izenburua daramanak, osatzen du aipatutako legearen bidez Ekonomia Itunean egin diren aldaketei buruzko aurretiazko analisia, aldizkari honen aurreko alean aurreratu zena, eta hartan sakontzen du perspektiba pribilegiatu bati esker; hain zuzen ere, egileari, José Rubí Cassinellori, Estatuko Administrazioarekiko negoziazioan Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria izateak —Euskadiko

tras i) una introducción en la que se describen las etapas del procedimiento, se hace eco de: ii) diez cartas de emplazamiento, dirigidas a las autoridades de diversos estados miembros en relación con casos en los que la Comisión ha detectado indicios de infracción por infringir las normas de la UE, iii) siete dictámenes motivados emitidos por la Comisión instando a determinados estados miembros a que adapten su normativa convenientemente, iv) una relación numerosa de asuntos archivados relativos a procedimientos de infracción respecto a los cuales los estados miembros afectados han adoptado las medidas correctoras que motivan su archivo y v) la remisión al Tribunal de Justicia de la Unión Europea (TJUE) de un asunto, que afecta a Austria, relativo al régimen del IVA aplicable a los derechos de reventa de obras de arte.

Por último, en el apartado final de Informes y Publicaciones sobre Fiscalidad en la Unión Europea se relaciona una serie de documentos de interés, indicando las correspondientes direcciones de acceso.

La Sección de “Estudios y Colaboraciones” se compone en esta ocasión de cinco artículos. Los dos primeros se centran en el análisis del contenido de los acuerdos en materia tributaria, por un lado, y en materia financiera, por otro, alcanzados en las reuniones de la Comisión Mixta del Concierto Económico de 17 de mayo y de 19 de julio de 2017 y que fueron posteriormente incorporados al marco jurídico de las relaciones financiero-tributarias entre el Estado y el País Vasco mediante la aprobación de las leyes 10 y 11, ambas de 28 de diciembre de 2017, publicadas en el Boletín Oficial del Estado de 29 de diciembre. El primero de estos dos artículos, “La modificación del Concierto Económico: análisis de la Ley 10/2017, de 28 de diciembre” complementa el análisis preliminar que de las modificaciones del Concierto Económico incorporadas por la referida Ley se avanzó en el anterior número de esta revista y profundiza en él con la perspectiva privilegiada que le otorga a su autor, José Rubí Cassinello, el haber participado de forma directa en la

lantalde negoziatzailearen barruan— ematen dion perspektibari esker. Zergak aldizkariaren 54. alearen editorialean aipatu zen bezala, aipatutako 10/2017 Legearen bidez Ekonomia Itunean egindako aldaketa indarrean den Ekonomia Itunak —maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsiak— izandako hirugarrena da, 2007an (28/2007 Legea) eta 2014an (7/2014 Legea) onetsitakoen ondoren, eta, seguruenik, aldaketa adierazgarrienak gehitzen dituen. Hogei artikuluri baino gehiagori eragin die, eta zenbait hobekuntza ekarri ditu foru-aldundien tributuoak kudeatzeko ahalmenean eta administrazioen arteko koordinazioan. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko idazkari orokor tekniko José Rubík aldaketak hainbat kategoriatan sailkatzen ditu:

- i. Egokitzapen teknikoak.
- ii. Atxikipenen kasu jakin batzuetan aplikatzekoak diren konexio-puntuen aldaketak.
- iii. Eskumenen arloko muga batzuk gainditzera eta konexio-puntu jakin batzuen aplikazioan elkarrekikotasuna segurtatzera bideratutako aldaketak.
- iv. Sozietateen gaineko Zerga eta BEZa errazteko eta koordinatzeko neurriak.
- v. Hainbat zergaren konexio-puntuetako aldaketak.
- vi. Zerga-administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetzara areagotzera bideratutako neurriak.
- vii. Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen prozedura berriak.
- viii. Aldaketen indarraldia.
- ix. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak hartutako beste erabaki batzuk.

Artikuluan zehar, egileak sailkapen horren arabera kategoriatan banatutako aldaketak banan-banan deskribatu eta baloratzen ditu, eta horrekin, zalantzarik gabe, erraztasunak emango ditu Ekonomia Itunaren tributuo-atal honen erreforma ulertzeko.

negociación con la Administración del Estado, representando a la Diputación Foral de Bizkaia dentro del equipo negociador del País Vasco. Tal como se apuntó en el editorial del nº 54 de Zergak, la modificación operada por la Ley 10/2017 constituye la tercera modificación que experimenta el vigente Concierto Económico, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, tras las aprobadas en 2007 (Ley 28/2007) y en 2014 (Ley 7/2014) y probablemente la que introduce cambios de mayor significación. Afecta a más de 20 artículos, incorporando diversas mejoras en la capacidad de gestión tributaria de las Diputaciones Forales y en la coordinación entre administraciones. El Secretario General Técnico del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, José Rubí, clasifica los cambios en varias categorías:

- i. Adaptaciones de carácter técnico.
- ii. Modificaciones de los puntos de conexión aplicables en determinados supuestos de retenciones.
- iii. Modificaciones tendentes a la superación de algunas limitaciones competenciales y asegurar la reciprocidad en la aplicación de determinados puntos de conexión.
- iv. Medidas de simplificación y coordinación en el Impuesto sobre Sociedades e IVA.
- v. Modificaciones en los puntos de conexión de diversos impuestos.
- vi. Modificaciones dirigidas a incrementar la coordinación y colaboración entre las administraciones tributarias.
- vii. Nuevos procedimientos de la Junta Arbitral del Concierto Económico.
- viii. Vigencia de las modificaciones.
- ix. Otros acuerdos adoptados en la Comisión Mixta del Concierto Económico.

A lo largo del artículo, el autor describe y valora cada una de las modificaciones categorizadas según esta clasificación, con lo que sin duda facilitará la comprensión de esta reforma de la parte tributaria del Concierto Económico.

Tributu-arloko aldaketan analisisa antzeko ariketa batekin osatzen da, oraingoan Estatuaren eta Euskadiren arteko harreman finantzarioen eremuari dagokionez; izan ere, hori bigarren artikuluan aztertzen da, "Euskadiren eta Estatuaren arteko harreman finantzarioak: 2017ko akordioak" izenburukoan, hori ere José Rubí Cassinellok egina. Sarreran aipatzen den bezala, kolaborazio horren asmoa ez da Ekonomia Itunaren aurkakoen eta aldekoen arteko eztabaidan sartzea, Batzorde Mistoaren akordioak gauzatu ondoren birpiztu baita eztabaida hori. Eztabaida horri buruz, artikulua sarreran, honako hau esate da "... Euskadin ... Itunaren araubidea pertsonen, erakundeen eta antolamendu sozial edo politikoen ia erabateko atxikimendu hautsezina lortzen duen erakunde bakarretako bat da"; gainerakoan, ordea, gai hori ukitzea sailhesten du, eta artikulua ardatza da aurretik zeuden desadostasunak, haien jatorria eta haien ondorioak azaltzea, eta desadostasun horiek gainditzeko lortutako akordioak deskribatzea. Kolaborazioak bi atal dauzka: lehenengoan, kupoen likidazioa-dela eta Euskadiko eta Estatuko administrazioen arteko desadostasuna eragin zuten arazoak azaltzen ditu, bai eta lortutako konponbidea ere; bigarren atalean, 2017-2021 bosturtekorako kupoa zehazteko metodologia berria eta haren eraginean jartzen du arreta.

10/2017 Legearen bidez Ekonomia Itunean sartutako aldaketetako bat, José Rubíren lehenengo artikuluan aipatutakoa, zerga-delituari buruzko 44. artikuluari dagokiona da, eta zerga-administrazioak jarduteko moduari buruzko araua egokitzeko beharrari erantzuten dio, tributu-arloko arau-haustea ogasun publikoaren aurkako delitua izan daitezkeela uste den kasuetan. Itunaren 44. artikulua aldaketa horren arrazoa abenduaren 27ko 7/2012 Lege Organikoaren bidez Zigor Kodean egindako erreforma da. Lege organiko horrek Zigor Kodea aldatzen du gardentasunaren eta zerga-iruzurraren eta Gizarte Segurantzaren arloko iruzurraren aurkako borrokaren arloetan. Aipatutako 7/2012 Lege Organikoa geroztik

